

» TELEGRAMA

Nostalgiko asko ikusten duzu inguruan azkenaldian? Zu ere nostalgiko? Ba **Piperrak** taldea garai batean entzundakoa bazara, jakin ezazu Josetxu abeslaria Gasteizen ariko dela martxoaren 24an Jimmy Jazz aretaon *STOP* Nostalgia esan dugu, ezta? Pixka bat gehiago, mesedez: **Janis Joplin** zena oroituko dute Bilbao Arten 24an, zinema eta musikari eskainitako zikloan *STOP* Baina atzera begira jartzeak balio dezala aurrera begiratzeko: horrelako zerbait da **Lou Topet** taldeak **Pete Seeger**-en musikarekin egin duena: Arriaga antzokian ariko dira martxoaren 26an *STOP*

» DISKOA

Aurrera, beldurrik gabe



Joxi Ubeda



Hegalen indarraz aitzina

ALTXATU

Gor, 2016

Diskoz disko aurrera egiten ari da Irunberriko Altxatu taldea. Zuhaitzik garaie-nean habia egiteari beldurrik ez dion txoriaren Japoniako kondaira baliatu dute inspirazio gisa, eta, kondairako txoriaren modura, erronka berriei beldurrik izan gabe osatu dute disko berria.

Punk-rock kutsuko doinuak jotzen jarraitzen dute, baina beren ukituarekin, bizi, indar handiarekin, eta melodia politak ere egiten dituzte, *Berriro* kantan, esaterako. Afinazioarekin jolastuz soinu berriak bilatu dituzte, eta gitarrak, baxuaz eta bateriaz gain, bonbardino eta tuba ere erabili dituzte diskoari amaiera ederra ematen dion *Biharko bide* kantan.

Diskoan entzun daitezkeen hamaika kantuetatik hamar Altxaturenak dira eta hamaikagarrena Julen Lekuonak 1983an idatzi zuen *Ez dut nahi* kantaren

bertsioa da. Kantu horretan Gorka Armendariz Leihotikan taldeko kideak abesten du Altxatu taldekoekin batera. Beste kantu batean, *Garaipen krudela* kantan, Silvia Hibakusha aritzen da. *Errugabe* kanta osatzeko, berriz, Eduardo Galeano-

ren *El emperador* istorioa moldatu dute (“Enperadoreak aholkulari errugabea urkatzea agindu, zerrenda luze bateko lehena izan zen, errugabeak urkatuz, lortu zuen errespetua”).

Kantetan, oro har, kritika eta salaketa egiten dute, eta beren kezken eta ametsen gainean mintzo dira: “Zer da gaur elkartasuna? Zer da gaur anaitasuna? Baloreek zentzua galdu dute” (*Garaipen krudela*), “Emakume askearen defentsa eginen dugu, emazteak afaria prestatu baino lehen” (*Hipokresia*), “Atzera egiteko astirik gabe, aitzinean dugu biharko bide, txorien antzera hegalek astinduz, bidaia berri baten hasiera dugu” (*Biharko bide*).

Harremanen, sentimenduen eta maitasunaren gainean ere bai: “Kantadazu hemen, astiro, zein ederra zaren” (*Berriro*), “Gaur ez dut gehiegi eskatu nahi, gutxiarekin konformatzen naiz, emaidazu ordu bat, beste erdia nik hartuko diot datorren egunari” (*Ordu eta erdi*).

Iker Ariz, Julen Abaurrea eta Ibai Osinaga Altxatu taldeko kideek 18 urte besterik ez dituzte eta jadanik hiru disko egin dituzte –*Altxatu* (2013) eta *Hitza* (2014) dira aurreko biak–. Lan berriko kantuetan heldutasuna erakusten dute, baina freskotasuna galdu gabe, eta erraz, lotsarik gabe eta gogotsu jotzen jarraitzen dute. ■



Irunberriko Altxatu punk-rock taldeko Iker Ariz, Julen Abaurrea eta Ibai Osinaga gazteak joaldi betean.